

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Hasierako onarpena ematea zerga ordenantzei

Udalbatzaren 2016ko urriaren 19ko erabakiarekin bat etorriz, jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantzaren eta zaborren eta hiri hondakin solidoen zerbitzu tasa-ren zerga ordenantzaren onarpen erabakia argitaratu zen ALHAOn (124. zk.a), 2016ko azaroaren 7an. 2016ko azaroaren 9ko udalbatzaren erabaki bidez, aldatu egin ziren jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak, eragiketa bolumenaren arabera.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, Toki Ogasunak arautzen dituenak, 16. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, argitaratu eta jendaurrean jartzen da, interesdunek espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten; erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da.

Erdoña, 2016ko azaroaren 11

Alkatea

DAVID LOPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO